

2



2

3

Jaialdia  
GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

# Jaialdia

## GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

Apirilaren 21etik 28ra arteko sail ofizialarekin, bi hamarkada bete zituen jaialdiak, pentsamenduarekin, sentsibilizazioarekin eta zinemaren kalitatearekin duen konpromisoa finkatuz. Urte esanguratsua zen, gainera; alde batetik, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 75. urteurrena betetzen zelako eta, bestetik, Txileko estatu-kolpe militarra gertatu zeneko 50. urteurrena. Bigarren gertaerak isla zuzenagoa izan zuen programazioan; horrela, ohorezko saria eman zitzaion **Carmen Castillo** dokumentalista txiletarrari, eta haren erakusketa bat ere egin zen.



Carmen Castillo, 2023 Zinemaldiko Saria

Mundu osokoko 27 film laburrek hartu zuten parte 2023ko jaialdiaren sail ezberdinetan. Askotariko gaiak jorratu dituzte film horietan, hala nola justizia unibertsala, abortatzeko eskubidea, Ukraina eta etxegabetasuna. Euskal ekoizpenek leku nabarmena izan zuten; hala, **20.000 Especies de Abejas** (Inaugurazioa), **Las buenas compañías**, **Cabeza y Corazón** eta **Nadie está lejos** filmak estreinatu ziren, eta **Karpeta Urdinak** filmaren emanaldi berezia egin zen. Film laburrak istorio gehiago ezagutarazteko tresna garrantzitsua izaten jarraitu zuen; 13 lanek hartu zuten parte. Beste edizio batzuetan bezala, epaimahai gazte jendetsu batek hautatu zuen film laburrik onena, eta saio gehienetara joan zen; saio horietako askotan, solasaldia egin zen filma proiektatu ondoren.



Estibaliz Urresola, 20.000 especies de abejas



Victoria Eugenia Antzokiaren fatxada



# 20

## GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

### FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS

**DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN / 2023**

**21 - 28** apirila / abril



plentzia argitak / foto: BILU 360º Jaka Zubia & Dana Moreno

[www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus)  
[www.cineyderechoshumanos.eus](http://www.cineyderechoshumanos.eus)

Antolatzaileak / Organizan



Babesleak / Patrocinan



Irisgarritasunaren filosofiak arlo guztiak hartzen ditu jaialdian eta, horregatik, gorrentzako 10 saio programatu ziren (filmak azpituluekin, eta solasaldiak zeinu-hizkuntzan). Jaialdiko ekitaldi gehienetan erabili zen zeinu-hizkuntza. Horrez gain, audio-deskribapenak izan zituzten bi saiotan, eta *Eserleku Urdina* etiketadun familia-saio bat antolatu zen, Gautena elkartearen aldeko irizpenarekin. Martuteneko espetxe barruan ere eskaini zen emanaldi bat.

Hiru filmek osatu zuten hezkuntza munduari zuzendutako eskaintza. Erabat berreskuratu zen ikastolentzako aurrez aurreko formatua Antzoki Zaharrean, baita ikasgeletan lantzeko ezinbesteko gidaliburu pedagogikoak ere.

Jaialdia osatzeko, **bost erakusketa** antolatu ziren hiriko hainbat lekutan.



*Malala erakusketa*



*Tetuán erakusketa*



Inaugurazioa Victoria Eugenia Antzokian